

2019KO UZTAILAREN 9AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZ KANPOKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zazpiak direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohiz kanpoko bilkura egiteko:

- 1.- UDALBATZARRAREN BILKUREN MAIZTASUNA FINKATZEA.
- 2.- INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRAK SORTU ETA HAUEN KONPOSAKETA ERABAKI.
- 3.- UDAL ZINEGOTZIEN ETA TALDE POLITIKOEN ORDAINSARIEI BURUZKO ERABAKIA.
- 4.- KIDE ANITZEKO ORGANOETAN UDALBATZARRAREN ORDEZKARIAK ZEINTZUK IZANGO DIREN ERABAKITZEA.
- 5.- TOKI-GOBERNU BATZARRA SORTZEKO ERABAKIA BERRESTEA.
- 6.- ALKATETZAK JARRAIAN ADIERAZTEN DIREN GAIEI BURUZ HARTUTAKO ERABAKIEN BERRI EMATEA.
 - ALKATEORDEEN IZENDAPENAK.
 - GOBERNU BATZARREKO KIDEAK.
 - EGINDAKO ESKUORDETZEAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).
Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen)
Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)
Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen)
Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).
Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).
Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).
José Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Legezko kide guztiak bertaratu dira.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- UDALBATZARRAREN BILKUREN MAIZTASUNA FINKATZEA.

Alkateak Udalbatzarraren ohiko bilkura hilean behin egitea proposatzen du. Era berean, hau egingo den eguna eta orduari buruz, proposamena asteartetan arratsaldeko 18:30etan egitea dela adierazten da.

Bestalde, abuztuan ohiko izaerarekin bilerarik ez dela egingo kontuan izanik, Udalbatzarraren ohiko bilkurei irailean hasiera ematea proposatzen da, zinegotzien artean banatuko den egutegiaren arabera.

Azaldutakoaren arabera, Udalbatzarrera etorritako kide guztiek, aho batez, honako hau erabakitzen dute:

Udalbatzarrak bere ohiko bilkura, hilean behin, asteartetan arratsaldeko 18:30etan egitea. Egun hori jai eguna izango balitz, Udalbatzarra hurrengo lanegunean egingo litzateke. Era berean, bilkura egunean herritar baten hiletaren bat egin beharko balitz, Udalbatzarra hau amaitu ondorengo ordura edo hurrengo egunera atzeratuko litzateke.

Alkateak adierazten du, ondoren hartuko diren erabakien erreserban, Udalbatzarra burutu eta jarraian, Toki gobernu Batzarra burutuko dela.

2.- INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRAK SORTU ETA HAUEN KONPOSAKETA ERABAKI.

Udalbatzarra osatzen duten kideekin gaia eztabaidatu ondoren, Alkateak egindako proposamenarekin bat eginez, Udalbatzarrera etorritako kide guztiek, aho batez, honako hau erabakitzen dute:

Lehena.- Indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, pertsonal, ekonomia eta ogasun gaiak aztertuko dituen Kontuen Batzorde Berezia eratzea.

Bigarrena.- Indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera Informazio Batzordeak, 5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan egon beharko dira, edo gutxiagoko biztanleak dituzten udalerrietan, Udaleko Araubide Organikoak hala adierazten, edo Udalbatzarrak hala erabakitzen badu.

Azkeneko legegalditan zenbait informazio batzorde sortu eta martxan egon badira ere, eraginkortasun arrazoiak direla medio, informazio batzorde horiek ez sortzea erabakitzen da, hauek burutzen dituzten eginkizunak hein batean bermatzeko, herritarrei irekiko zaizkien lantalde hauek sortuko direlarik:

Kultura
Turismoa
Hirigintza eta zerbitzuak
Gazteria
Gizarte Zerbitzuak
Hezkuntza

Mendiak eta Auzoak

Kirolak

Euskara

Berdintasuna

Komunikazioa

Hirugarrena.- Kontuen Batzorde Bereziak (eta pertsonala), ohiko bilkura hamabost egunetik behin egingo du, hasiera batean, astertetan, arratsaldeko 18:00etan). Nolanahi ere, eguna eta orduari dagokionez, bere kasuan, Alkateak dagokion Dekretuan erabakitzen duena jarraituko da.

Laugarrena.- Kontuen Batzorde Bereziaren (eta pertsonala) konposaketa, honako hau izango da:

Batzorde-burua: Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).

Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).

Ordezkoak:

Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen)

Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).

Eratutako batzordearen funtzionamenduari dagokionez, Toki Gobernu Batzarraren funtzionamenduari buruz ezarritakoa jarraituko du.

Bosgarrena.- Lantalde irekiak (herritarren artean partaidetza zabalduko dela adierazten da), onartzen den moduan osatuko dira, eta bilkurak lantalde bakoitzaren buruak egindako deialdian adierazitako egunean, lekuan eta orduan burutuko dira, ohiko egutegi bat finkatu gabe (nolanahi ere, hirigintza lantaldeak, hamabost egunero burutuko du bere bilkura ohizko izaerarekin, asteartetan, 17:00etan, Lehendakariak finkatuko duen egutegiaren arabera).

Lantaldeen konposaketa adostu ondoren, honako hau izango dela adierazten da:

Kultura

Lantalde-burua: Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen)

José Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu).

Turismoa

Lantalde-burua: Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

Hirigintza eta zerbitzuak

Lantalde-burua: Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen)

Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).

Gazteria

Lantalde-burua: Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).
Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).

Gizarte Zerbitzuak

Lantalde-burua: Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).
Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen)
Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).

Hezkuntza

Lantalde-burua: Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).
Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).

Mendiak eta Auzoak

Lantalde-burua: Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)
Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).

Kirolak

Lantalde-burua: José Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu).
Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen)

Euskara

Lantalde-burua: Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).
Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).

Berdintasuna

Lantalde-burua: Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).
Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).
Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).

Komunikazioa

Lantalde-burua: Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen)

Puntu honetan, Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu) adierazi nahi du, berdintasun alorrean teknikari bat hartzeko beharraren inguruan egin den proposamena ongi iruditzen zaiela. Era berean, aurreko legealdian berdintasun lantaldearen funtzionamendua ona izan dela irizten dutela adieraziz, oraingoan, lantalde-buru gizonezko bat jartzea ez zaiela ongi iruditzen. Alkateak adierazten du, berdintasunaren alde lan egingo duela eta helburu horrekin hartzen duela lantaldearen ardura.

3.- UDAL ZINEGOTZIEN ETA TALDE POLITIKOEN ORDAINSARIEI BURUZKO ERABAKIA.

Idazkariak adierazten du, bere jarduerak burutzeko udal ordezkariak talde politikoetan antolatuko direla, ezartzen diren forma, eskubide eta betebeharrekin.

Ondorio horietarako Zegamako Udala osatzen duten bi taldeak, Euskadiko Tokiko Institutuzioen, apirilaren 7ko, 2/2016 Legeak ezarritako idatzia aurkeztu dute, horrenbestez,

honako taldeak eratuz:

Zegama Lantzen taldea:

Joseba Izagirre Arozena jn. (Bozeramailea)
Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Ordezko bozeramailea)
Ibon Zabaleta Urbizu jn.
Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn.
Julian Iraola Lapizondo jn.

EH Bildu taldea:

Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (Bozeramailea)
Iosune Azurmendi Telleria and. (Ordezko bozeramailea)
Aritz Agirre Garikano jn.
José Luis Azurmendi Larrea jn.

Era berean, Idazkariak, udaleko talde politiko eta zinegotzien ordainsariei buruz EUDELeK emandako irizpide-akordioen berri ematen du.

Horren arabera, herri bakoitzaren biztanlegoaren arabera, talde politiko eta zinegotziei ordaindu beharreko gehienezko ordainsariak ezartzen dira. Honela, EUDELen idatzia aztertu ondoren, taldeen artean adostutakoaren arabera, talde politiko bakoitzeko 150,00 euro/hilean eta zinegotzi bakoitzeko 60,00 euro/hilean ordaintzea proposatzen du Alkateak.

Era berean, bilkuretara bertaratzeagatik ordainsaririk ez ematea proposatzen da.

Alkateak adierazten du ere, aurreko legealdian bezala, Alkate kargua betetzean burutzen dituen lan eta dedikazioarengatik ordainsaririk ez dituela jasoko.

Proposamenak entzunik, Udalbatzarrera etorritako kideek, aho batez, honako hau erabakitzen dute:

Lehena.- Udal honetako talde politiko bakoitzari, beraien iharduerak eta ekintzak sustatzeko hilean ordainsari moduan 150,00 euro ordaintzea.

Bigarrena.- Udal honetako zinegotzi bakoitzeko 60,00 euro/hilean ordaintzea.

Hirugarrena.- Gai honen inguruan jasotako beste adierazpenak eta proposamenak ontzat ematea.

4.- KIDE ANITZEKO ORGANOETAN UDALBATZARRAREN ORDEZKARIAK ZEINTZUK IZANGO DIREN ERABAKITZEA.

Alkateak, Udalak parte hartzen duen kide anitzetako organoen zerrendaren berri ematen du, hauetan udalaren ordezkariak zeintzuk izango diren erabaki behar delarik.

Horren arabera, AIAk bere 38.c) atalean dioena jarraituz, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Udalak parte hartzen duen kide anitzetako organoetan Udalaren ordezkari bezala honako hauek izendatzea:

SASIETA.- Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen) eta Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen)

HERRI ESKOLA.- Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).

MUSIKA ESKOLA.- Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).

HAURTZAINDEGIA.- Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).

EUDEL.- Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

GIPUZKOAKO URAK S.A./ GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA: Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen)

GOIEKI.- Gaiaren arabera, lantalde bakoitzaren lehendakaria joango da bilkuretara.

GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA FUNDAZIOA.- Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen)

IKASLAN FORMAKUNTZA ZENTROA FUNDAZIOA.- Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen)

GOIMEN.- Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen) eta Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

GIPUZKOA ETA ARABAKO PARTZUERGOA.- Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen) eta Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

GOITUR.- Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen) eta Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).

TOLOSAKO HILTEGI MANKOMUNATUA.- Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).

GOIERRI BEHEKO INDUSTRIALDEA S.A.- Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

Izendatuek, bilkura honetan, izendapen hori onartzen dute, horretarako inongo bateraezintasun edo legezko galerazpenik ez dutela adieraziz.

Bigarrena.- Dagokion organoari izendapen horien berri ematea.

5.- TOKI-GOBERNU BATZARRA SORTZEKO ERABAKIA BERRESTEA.

TJOLk bere 20.1.b) atalean eta AIAk bere 52 atalean ezarritakoaren arabera, Toki Gobernu Batzarra 5000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietan bere Barne Araudiak ezartzen duenean edo Udalbatzarrak onartzen duenean egongo da, hau, Alkateak, eta honek izendatzen dituen zinegotziak (gehienez Udala osatzen duten kideen heren bat) osatuko dutelarik.

Udalbatzarrak, 1991ko uztailaren 4an Batzorde hori sortu zuen, hau azkeneko legealdietan lanean jardun delarik.

Alkateak adierazten du, aurreko legealdian bezala, Toki Gobernu Batzarrera, nahiz eta araudian ezarritakoaren arabera, kide kopuru murriztu batez osatua egon, zinegotzi guztiak bertaratzeko aukera izango dutela, bertan erabakitzen diren gai guztien eztabaidan parte hartuz ere (erabakien bozketatan legezko kideak bakarrik parte hartu ahal izango dute). Era berean adierazten da, araudian bideratu berri den aldaketaren arabera, bilkura horiek publikoak izango direla, Udalbatzarrak bestelakorik onartzen ez badu.

Idazkariak ohartarazten du, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, Alkateak

bere aginpideen eskuordetzea, Toki Gobernu Batzarrean (egonez gero) edo Alkate-ordeengan egin dezakeela soilik, eta ez Udalbatzarrean.

Horren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Toki Gobernu Batzarra sortzeko aipatutako erabakia berrestea. Beraz, legealdi honetan ere Toki Gobernu Batzarra bildu egingo da, bere konposaketari dagokionez Alkateak dagokion dekretuan erabakitzen dena jarraituko delarik.

Bigarrena.- Toki Gobernu Batzarrak bere ohiko bilkura hilean behin, Alkateak, dagokion erabakian ezartzen duen egun eta orduan, egingo du. Bilkurak, asteartetan egingo diren Udalbatzarren ondoren burutuko dira, eta ohiko izaerarekin irailaren lehenengo edo bigarren astelehenean egiten hasiko dira.

Hirugarrena.- Eskubidezko kideez gain, Udaleko beste zinegotzietan Toki Gobernu Batzarrean parte hartzeko eskaintza luzatzea (ahotsarekin eta boturik gabe).

Kontuan izanik, Toki Gobernu Batzarra, Zegamaren kasuan, Alkatea eta gehienez hiru zinegotziz osatuta egon behar dela, eta bere bilkurak zuzen eratzeko, beti ere hiru kide egon behar direla, Idazkariak adierazitakoaren arabera legeak aukera hori jasotzen ez badu ere, honen funtzionamendua bermatu ahal izateko, eta bere kasuan, Udal Araudi Organiko baten bitartez arautzea adosten den bitartean, komenigarria irizten da Toki Gobernu Batzarreko ordezkari-kideak izendatzea, Alkateak bere izendapen-dekretuan adierazten duenaren arabera.

6.- ALKATETZAK JARRAIAN ADIERAZTEN DIREN GAIEI BURUZ HARTUTAKO ERABAKIEN BERRI EMATEA.

- ALKATEORDEEN IZENDAPENAK.

Udalbatzarrak, Alkateordeak izendatuz, eta Alkateordeak Toki Gobernu Batzarreko kideak izan behar direla Idazkariak egindako lege ohartarazpenak ezaguturik, 2019ko uztailaren 4ko Alkatetzaren erabakiaren berri jasotzen du, jarraian adierazten denaren arabera:

“Toki Araubidearen Oinarriak ezartzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23 artikulua eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Entitateen Antolakuntza, Jarduera-araudi eta Araubide Juridikoa arautzen duen Araudiaren 43.2, 52 eta 53 artikuluek emandako eskuduntzen egikaritzan, Alkatearen aginpidea da Alkateordeen izendapena egitea. Era berean, azaroaren 28ko 2568/1986 Erret Dekretuan ezarritakoaren arabera, Udalbatzarrari izendapen horien berri eman beharko zaio.

Hori horrela izanik, eta, halaber, aipatutako Erret Dekretu horretako 46. Atalak dioena jarraituz, honako hau erabakitzen dut:

Lehena.- Udal honetako Alkateorde hauek izendatzea:

- Lehen Alkateordea: Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).
- Bigarren Alkateordea: Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).
- Hirugarren Alkateordea: Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).

Bigarrena.- Udaltzarrari izendapen hauen berri ematea eta doakionei pertsonalki jakinaraztea. Azkenik, izendapen hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.”

- TOKI-GOBERNU BATZARREKO KIDEAK.

Udaltzarrak, Toki Gobernu Batzarreko kide bezala honako zinegotziak izendatuz, 2019ko uztailaren 4ko Alkatetzaren erabakiaren berri jasotzen du:

“ Azaroaren 28ko 2568/1986 Erret Dekretuaren 41.3. atalak diotenaren arabera, Alkatearen aginpidea da Toki-Gobernu Batzarreko kideak izendatzea. Era berean, 38.atalean ezarritakoaren arabera, Udaltzarrari izendapen horien berri eman beharko zaio.

Zentzu berekoa da Erret Dekretu horretako 52. atala, bertan, Toki-Gobernu Batzarkideen zenbakia, udaltzarra osatzen duten herena baino gehiago ezin daitezkeela izan adierazten delarik.

Eratu berri den Alkate honen borondatea, Toki-Gobernu Batzar hori sortzea dela kontutan harturik, eta Udaltzarrak dagokion akordioa hartzearen erreserban, honako hau erabakitzen dut:

Lehen.- Udal honetako Toki-Gobernu Batzarreko kideak honako zinegotzi hauek izendatzea:

Alkatea: *Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).*

Zinegotziak:

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen)

Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).

Ordezkoak:

Titularra: Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).

Ordezkoa: Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen)

Titularra: Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen)

Ordezkoa: Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)

Titularra: Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).

Ordezkoa: Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).”

- EGINDAKO ESKUORDETZEAK.

Udaltzarrak, Toki Gobernu Batzarrean jarraian adierazten diren aginpideak

eskuordetuz, 2019ko uztailearen 4ko Alkatetzaren erabakiaren berri jasotzen du:

“ Ikusirik xedatutakoa apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.3 eta 21.4 artikuluetan, Tokiko Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituenean, eta xedatutakoa Toki Erakundeen Antolamendua, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Araudia onartu zuen azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuko 43 artikuluan eta hurrengoetan, eta bat datorren gainerako legerian.

Ikusirik, goian aipatutako legeen arabera Alkatetza honek bere eskudunak eskuordetu ditzakeela, kasu hauetan izan ezik: LRBRLko 21.3 artikulua aurre ikusitako kasuetan, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 13. artikulua jasotakoetan, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako erredakzio berrian (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen du).

Nik, alkate-udalburuak, legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliaturik, hauxe erabakitzen dut:

Lehena.- Aurrean adierazitako araudietan adierazten diren Alkatearen aginpide guztietatik, Toki-Gobernu Batzarrean (Udalbatzarrak hau sortzeari buruz dagoen akordioa hartzearen erreserban) honako hauek eskuordetzea:

- Udal zerbitzu eta lanak zuzentzea, ikuskatzea eta eragitea.
- Onartutako aurrekontuaren arabera, kudeaketa ekonomikoa garatzea eta gastuak egiteko erabakiak hartzea bere aginpidearen muga barruan, gastu horiek 6.000,00 eurotik gorakoak direnean.
- Kontuhartzaitzetan jasotako aurrekontuaren ohiko garapenari dagozkion fakturak onartzea, horiak 6.000,00 eurotik gorakoak direnean.
- Udalbatzarrak onartutako aurrekontuaren eta langileen-zerrendaren arabera lan-eskaintza onartzea. Langileak aukeratzeko eta lanpostuak lehiaketa bidez hornitzeko oinarriak onartzea. Finkoak eta aldizkakoak ez diren osagarritzko soldatak banatzea.
- Langile guztien izendapena egin eta zigorrak ezartzea, funtzionarioak zerbitzuetik banatzea eta lan hitzarmeneko langileak kalera botatzea izan ezik.
- Bere agintaritzari menik ez egiteagatik eta udal-ordenantzak hausteagatik hutsegiteak zigortzea, ahalmen hori beste organoren bati aitorturik dagoenean izan ezik.
- Edozein motatako kontratuak eta emakidak, beti ere, horiek, ohiko diru-sarreraren %10^a eta sei milioi euro gainditzen ez badute. Urte anitzetakoak barne egongo dira, horien iraupena lau urte baino gehiagokoa ez bada, zenbateko osoa, lehenengo ekitaldiko ohiko diru-sarrerekin alderatuz adierazitako portzentaia gainditzen ez badu eta adierazitako diru kopuru hori gainditzen ez badu (6.000,00 eurotik beherako kontratuak eta emakidak Alkatearen aginpidean mantenduko dira).
- Lan eta zerbitzuetako proiektuak onartzea, hauek kontratatzeke edo emateko aginpidea duenean eta aurrekontuan jasota daudenean.

- Aurrekontuaren ohiko diru-sarreraren %10^a eta hiru milioi euro gainditzen ez dituzten ondasunak eta eskubideak onartzea. Era berean, ondarea saltzea, adierazitako portzentaia edo diru kopurua gainditzen ez dutenean honako kasu hauetan:

Ondasun higiezinena, aurrekontuan jasota dagoenean.

Ondasun higigarriena, aurrekontuan jasotzen ez diren ondasun istoriko edo artistikoena izan ezik.

- Baimenak ematea, arloko legeek Udaltzarrari ematen dizkietenak izan ezik. Nolanahi ere, Alkateak obra txikietako baimenak ematea bere esku uzten du.

-Legeek berariaz aitortzen dizkieten gainerakoak eta Estatuko nahiz Autonomia-Elkarteetako legediak udalari izendatu baina udaleko beste organoren bati aitortzen ez dizkionak.

Bigarrena.- Udaltzarrari erabaki honen berri ematea eta eskuordetze hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko gaueko zazpiak eta berrogeita hamar minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2019kok

O.E./ VºBº
ALKATEAK/EL ALCALDE

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2019.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO